



Darfur

Hiltzear diren 10.000 haur Europara

Hiltzen ari dira Darfur eskualdeko (Sudan) haurrak. Haur ez direnak ere bai, jakina, baina L'Arche de Zoé Gobernuz Kanpoko Erakunde frantziarrak bost urte azpiko 10.000 haur salbatu nahi ditu Europara, Kanadara eta Amerikako Estatu Batuetara eramanez.

ONINTZA IRURETA

2007KO MARTXOAN UNICEF eta tankerako hainbat erakundek idatzia zuten: Darfurreko gatazka medio urtebetean 812.855 haur hiltzeko arriskuan dira. Gatazkak bi milioitik gora haurri eragin die eta lau milioitik gora sudandarri. 812.855 horietatik L'Arche de Zoék hamar mila salbatu nahi ditu, Nazioarteko Legedian oinarrituz. Hamar milakoak zifra lotsagarria dirudi beste zifraren ondoan, baina milaka haur Sudanetik atera eta Europa eta Amerikara eramatea "abentura" izugarria izango da: nola atera handik? eta nola sartu

Frantzian? Haur bahiketagatik hogeitaz urteko kartzela zigorra jaso dezakete L'Arche de Zoé erakundeko kideek.

Komeni aurrera egin aurretik L'Arche de Zoé erakundea zer den azaltzea. Erakunde sortu berria da, 2004ko tsunamiak kaltetutakoak laguntzera Indonesiako Banda Aceh-ra joandakoan. Zoé boluntario bati besoetan hil zitzaion neskatoren izena da. L'Arche de Zoén bildu ziren bestelako erakundetatik –Mugarik Gabeko Medikuek, Gurutze Gorria...– ateratako hainbat kide. Ez ziren gus-

tura erakunde horietan. Estatuen diru-laguntzak zituzten eta beraz, eskuak lotuta. Adibide bat ematearren: Indonesian bost izarreko hoteletan egiten zuten lo GKEetako kideek. Sudanen beste hainbeste gertatzen zaie, Khartum hiriburuko hoteletan hartu dute ostatu eta ezin dute behar den bezala ezta nahi duten bezala lan egin. Hori bai, Sudango agintarientzat diru iturri biziki interesgarriak dira. Erakunde horietako hainbat kritikok elkartu eta L'Arche de Zoé sortu zuten. Frantsesek sortu dute erakundea, ez daukate soldatapeko langilerik, ez dute diru-laguntzarik eskatzen, fundazioek eta partikularrek laguntzen diete. Beraz, eskuak libre nahi duten –edo ahal duten– moduan lan egiteko.

L'Arche de Zoék beste GKE askoren laguntza du, baina proiektu humanitarioa ez dute begi onez ikusi instituzioek, eta Frantziako Gobernuaren onespenean ere ez du. Erakundeak garbi dauka ordea; Nazio Batuen Erakundeak 2003tik Darfurreko gatazkarentzat 15 erresoluzio egin ditu. 2008ko urtarriletik operazio eraginkorra jarriko omen dute abian. Ordurako hamar mila haur hilko direla dio L'Arche de Zoék. Ez dira zain egongo.

Europara ekarri... eta berriz Sudanera?

Helburu nagusia bat da: haurrak ez daitezela gose eta egarri hil, ezta hiltzaileen eskuetan

Nazio Batuen Erakundeak 2003tik Darfurreko gatazkarentzat 15 erresoluzio egin ditu. Urtarriletik operazio eraginkorra jarriko omen dute abian. Ordurako hamar mila haur hilko direla dio L'Arche de Zoék. Ez dira zain egongo

erori ere. Darfurreko kanpamentuetan bildurik dira milaka eta milaka haur –zahar eta emakume askorekin batera–. Europara ekarri nahi dituzten haurrak umezurtzak dira; batzuk bortxatu dituzten ama gazteen haurrak dira eta aurreiritzi kultural eta erlijiosoengatik haur horiek utzi egin dituzte. Beste batzuei familia osoa erail diete. Gainerako haurren gurasoek seme-alaba zaharrenekin ihes egin dute, ahulak, txikiak utzita. Bertako tribu eta herrietako agintariek baiezkoa emana dute. Ez dute baliabiderik haur horiek bizirik mantentzeko eta L'Arche de Zoéri baimena eman diote haurrak Darfurretik ateratzeko. Agintari horiek bilduko dituzte haurrak eta bakoitzari buruz duten informazio gutzia bilduko dute. Ondoren, L'Arche de Zoé erakundeko kideek lan latza egin beharko dute: Europarako bidaiari

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: _____ - Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orrri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA



ECHO / PETER HOLDSWORTH



ECHO / PETER HOLDSWORTH

luzerako osasun egoera onena dutenak aukeratu. Asmoa, ametsa, 10.000 ateratzea abuztutik aurrera. Nola? Ez digute xehetasunik eman nahi, kontrako asko baita. Pentsa abuztuan Frantziara iristea lortzen dutela. Zer esango du gobernua? Darfurrera itzuliko al ditu gosetutako eta gerrak traumatizatutako haur txikiak? Horixe eskatzen du L'Arche de Zoék, hedabideek indar ematea gai honi, jakin dezala Frantzia osoak eta Europak milaka haur datozela bizia salbatzera. Zein ausartuko da haurrak Sudanera itzultzeko? Erakundeak lehenengo gauza horixe egingo du, haurrentzako asiloa eskatu.

Bizitokitatik ihes eginda kanpalekuetan bizi diren sudandarrak.

300 familietatik gora haurrak hartzeko prest

Handik haurrak ateratzea ez da erraza izango, baina L'Arche de Zoéko kideak jo eta su ari dira harrera prestatzen. Lehen pausoa eta garrantzitsuena —behin eta berriz azpimarratu digute erakundeko kideek— haurrei bizia salbatzea da. Bigarren pausoa litzateke haurrei familia berriak Europan eta Amerikan aurkitzea. Oraingoz haurrak salbatzeko kanpaina

Frantzian zabaldu dute. Azken bilkuretan, Parisen 150 familia eta Montpelierran 100 bildu ziren lehen txandako 250 haur babeste-ko intentzioz. Horien artean dira Ipar Euskal Herriko bost familia —Hegoaldean ez da zabaldu erakunde frantziarraren proiektua—. Kanpainaren hasieran Frantziako adopzio sare ofizialean haurrak eskatuak zituzten familiei luzatu zieten deia, ustez, adopzioarako ondo prestatutako familiak. Jakina, L'Arche de Zoéren deiari erantzun dioten familia horiek Frantziako Gobernuaren adopzio sare ofizialean daude eta gobernua esana du erakunde horren ekintza ez dela adopzio ekintza, ekintza humanitarioa baizik.

Frantziako adopzio sare ofizialek kanpoko familiak ere hasi dira eskaerak egiten eta baita haurrik hartuko ez dutenak laguntzen ere. Adoptatu, ala besterik ezean, familiek beren ardurapean hartzen baldin badituzte, bost urte azpiko haurrak artatu egin beharko dira, sendagilearengana eta psikologoarengana eraman, etxean egokitu... Era berean, borroka administratiboa bideratuko dute Frantziako Gobernuarekiko, umeak Frantzian gera daitezela, Gizarte Zerbitzuak erabil ahal izateko, adoptatu ahal izateko... Horretarako, familiarren kolektiboa antolatzeko ari dira, baita Euskal Herrian ere. Abokatu, mediku, psikologo eta familiarrek osatuko dute kolektiboa. Dagoeneko haur afrikarrei jarraipena egiten aditua den psikologo euskaldun batekin harremanetan dira, baita langile sozial batekin ere. Afrikar hurrekin esperientzia duen sendagile pediatria euskaldunaren bila dabilta orain.

Aterako ote dituzte Sudango gerra horretatik haur gosetiak? Frantziara helduko ote dira? Frantziako Gobernuak haurrak heriotza segurura itzultzeko ausartuko al da? Politikariren batek, norberaren intereserako bada ere, erakundearen alde egingo ote du? L'Arche de Zoé erakundearen haurrak hartzeko eskaerari erantzun dion Maite Bergara lekornearrak (Lapurdi) dio ezin dela ezer egin gabe egon, ekintza humanitario ausarta, zuzena eta pozgarria dela eta L'Arche de Zoé bederen, ekintzetan ari dela eta ez hitzetan soilik. ■

L'Arche de Zoérekin harremanetan jarri nahi izanez gero: <http://archedezoe.free.fr>

Pello Zubiriak Net Hurbil atalean Darfurri buruz idatzitako bi artikuluko dituzue sarean:

"Darfur genozidio baten geopolitika" (2007-03-01)

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2082>

"John Garang Sudango gerrillaria geopolitikan igeri" (2005-02-20)

<http://www.argia.com/argia-astekaria/1980>